



TEATROA
URTARRILA - APIRILA 2018



AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala



URTARRILAK, 21 / 17:00

GUREA ANTZOKIAN



LINBO PLANETA

DEJABU PANPIN LABORATEGIA

HAUREN ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Miren Alkala, Alvaro Garayalde
ZUZENDARITZA: Urko Redondo, Ainara Gurrutxaga

Inork oroitzen ez duen leku bat. Ondarrez, zaborrez eta behin etxe izan zirenen hondakinez inguratutako leku urrun bat. Gerrak atzean utzitako hondamendia agian? Errefuxiatu kanpamentu abandonatu bat akaso?

Edo nork daki, galaxia honetako beste planeta bat beharbada. Gizaki bakarra bizi da bertan, zortzi urteko neskatila bat: Numa.

SARRERA PREZIOA: 5 €

URTARRILAK, 28 / 19:30

GUREA ANTZOKIAN



ERGELA

TXALO PRODUKZIOAK

HELDUENTZAKO ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Sara Cozar, Joseba Apaolaza
ZUZENDARIA: Begoña Bilbao

Proba psikologiko batzuetarako bere burua aurkeztu du protagonistak, diru pixka bat irabazteko asmoz. Bere arazo ekonomikoak konpontzeko diru erraza irabazteko joan da, baina tranpa eta iruzurra aurkituko ditu ordainetan. Psikologa batek galdera sorta tranpatia egingo dio, gure gizon ergela urdurita-sunak jota utzi arte. Halabeharrez, bere onenak eman beharko ditu zoritxarreko amaierarik gerta ez dadin.

SARRERA PREZIOA: 10 € aldezturik (AMASA eta BASAJAUN) / 12 € leihatilan

OTSAILAK, 4 / 17:00

GUREA ANTZOKIAN



GU (EZ GAUDE BAKARRIK)

BOROBIL TEATROA

HAUREN ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Asier Sota, Julen Vega, Imanol Espinazo,
Hannah Berry
ZUZENDARITZA: Anartz Zuazua

Mundua kolorez eta animaliaz beteta dagoen leku eder bat da. Gizakia naturaren parte bezala bere ingurunea errespetatu eta zainduko du baina momentu batean tximiniak eraikitzen hasiko da eta tximiniak dirua emango dute. Diruarekin dena lortu daitekeela sinistuko du. Baina lortuko duen gauza bakarra, mundua kolorerik gabe uztea izango da.

SARRERA PREZIOA: 5 €

OTSAILAK, 25 / 19:30

GUREA ANTZOKIAN



EUSKAL MUSIKAREN BENETAKO ISTORIA

EZ DOK HIRU

HELDUENTZAKO ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Patxo Telleria, Mikel Martinez
MUSIKO-AKTOREAK: Adrian Garcia, Maria Arriaga, Ivan Allue
ZUZENDARIA: Jokin Oregi

Ez dok Hiru"-ren proposamen teatral berria duzue hau. Publiko helduari zuzendutakoa, umorezkoa, euskaraz. Patxo Telleriak testuak sortzeko eta Mikel Martinezek, eta Telleriak berak, zuzenean antzezteko duten estilo paregabearekin. Herriko imaginario musikalaren erre-paso ironiko, absurdu eta dibertigarria da hau. Orain-go honetako, bikoteak beste hiru musikari-aktoreekin partekatuko du taula, hitzari, bere ohiko tresna eszenikoari, zuzeneko musikaren indarra gehituz.

SARRERA PREZIOA: 10 € aldezturik (AMASA eta BASAJAUN) / 12 € leihatilan

MARTXOAK, 3 / 20:00

ERREKA TABERNAN



ERBESTE

ANODINO TEATROA

HELDUENTZAKO ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Getari Etxegarai, Aitor Fernandino
TESTUA: Mikel Fernandino

Istoriu honetan Eva eta Adanen istorioa kontatzen dugu baina Evaren ikuspegitik, izan ere, bidean hainbat gezur, gaizki-uleitze eta egi ustelak aurkituko ditugu eta orduan kontatu diguten Paradisua... Paradisua izaten jarraituko du?

SARRERA PREZIOA: Doan

MARTXOAK, 10 / 20:00

URRIZPE TABERNAN



SAN JOSÉ HECHO UN CRISTO

TEATRO PARA ADULTOS
HIZKUNTZA: GAZTELANIAZ

AKTOREA: Diego Perez (VAYA SEMANITA)
TESTUA: Fernando Rodriguez (VAYA SEMANITA)

San José rompe por primera vez su silencio y viaja desde el reino de los cielos hasta la tierra para revelarnos lo que la Biblia nunca nos ha contado: la primera vez que hizo manitas con la Virgen, cómo se lió a tortas con el Espíritu Santo, o sus problemas para lograr que su hijo Jesús -o Txus, como le llama él- buscara un trabajo en lugar de vivir la sopa bobba predicando.

SARRERA PREZIOA: Doan

MARTXOAK, 10 / 16:00 • 19:00

GUREA ANTZOKIAN

MARTXOAK, 11 / 12:30 • 17:00



GO!AZEN

PAUSOKA

HAUREN ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Asier Burguete, Aritz Mendiola, Ainhoa Larrañaga, Beñat Iturbe, Iholdi Beristain, Ramon Agirre
ZUZENDARITZA: Jabi Elortegi, Ainhoa Aierbe, Itziar Gomez

Uda iritsi da beste behin ere eta honekin batera, Basakabi udalekuak bere atea zabalduko ditu berriz. Pasa den urteko ikasleak, beste ikasle berri batzuekin gurutzatuko dira, denak Basakabiko disziplina zorrotzaren zaindaritzapean.

Aurreko urtean bezala, umorez beteriko antzerki obra musikala izango da hau. Telebistan ikusi ahal izango diren istorio eta gorabeherak laburtu eta moldatuko dituen ikuskizuna.

SARRERA PREZIOA: 10 €

APIRILAK, 15 / 19:30

GUREA ANTZOKIAN



BARRO ROJO

TEATRO PARA ADULTOS
HIZKUNTZA: GAZTELANIAZ

AKTOREA: Javier Liñera
ZUZENDARITZA: Daniela Molina y Linda Wise

Un viaje. Un viaje por la historia del protagonista y la historia de su tío gay. Una historia dentro de otra historia. La historia de un tío que fue encerrado en un campo de concentración y luego en la cárcel. Por ser gay. La historia de dos realidades del pasado. La Europa de Hitler, la España de Franco.

SARRERA PREZIOA: 6 €

APIRILAK, 20 / 22:00

ALJIBEAN



HOZKAILUA

ARTEDRAMA

HELDUENTZAKO ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Patricia Urrutia, Ander Lipus
ZUZENDARITZA: Manex Fuchs

Maite eta Karlos herririk herri dabilta hozkailu zahar batekin. Hozkailuaren barruan, garagardo lata eta hestekien artean, Londonetik dakarten Jimmy lagunaren hilotza daramate. Zin egin baitzioten Jimmyri bere jaioterrian lur emango ziotela. Nongoa zen galdetzea ahaztu zuten, ordea. Zinezko adiskidantza bat azaleratuko duen ezinezko bilaketa baten istorioa da Hozkailua.

SARRERA PREZIOA: 5 €

APIRILAK, 22 / 17:00

ALJIBEAN



ALI BABA ETA 40 LAPURRAK

BOROBIL TEATROA

HAUREN ANTZERKIA
HIZKUNTZA: EUSKARAZ

AKTOREAK: Asier Sota, Julen Vega, Anartz Zuazua
ZUZENDARITZA: Anartz Zuazua

Ali Baba, Persiako herri batean bizi den egur biltzaile txiroa da. Egurra biltzen basoan dabilen batean, zarata izugarri batek beldurtuko du. Zuhaitz baten adarren artean ezkutatu eta 40 lapur ikusiko ditu mendian dagoen harkaitz erraldoi baten aurrean gelditzen.

Lapurren buruzagiak "ireki zaitetz, sesamo" esatearekin bat, kobazuloa ireki egingo da. 40 lapurrek ostutako urre zakuak kobazulo barruan utzi eta alde egindakoan, Ali Babak, harkaitzaren aurrean jarri eta buruzagiaren hitzak errepikatuko ditu. "Ireki zaitetz sesamo". Eta kobazuloa ireki egingo da.

SARRERA PREZIOA: 5 €